



GIZARTE ZERBITZUEN ERAKUNDE ARTEKO ORGANOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

EGUNA:	2017ko abenduaren 18an
TOKIA:	EUSKO JAURLARITZAKO EGOITZAN (Lakua II, 6. gela)
HASIERA ORDUA:	11:00.
AMAIERA ORDUA:	11: 40.

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA

Beatriz Artolazabal Albeniz and., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko sailburua.

KIDEAK

- Eusko Jaurlaritzako ordezkaria:
 - Lide Amilibia Bergaretxe and., Gizarte Politiketako sailburuordea.
 - Emilio Sola Ballojera jn., Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.
 - Ernesto Sainz Lanchares jn., Familia Politika eta Aniztasuneko zuzendaria.
 - Hernando Lacalle Edeso jn., Aurrekontuen zuzendaria (Alberto Alberdi Larizgoitia jaunaren ordezkari, Ekonomia eta Aurrekontuen sailburuordea).
 - Andrés Zearreta Otazua jn., Funtzio Publikoko sailburuordea.

- Foru Aldundien ordezkariak:

- Marian Olabarrieta Ibarondo and. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako diputatua.
- Sergio Murillo Corzo, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritzako zuzendaria (Isabel Sánchez Robles andrearen ordezkari, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako diputatua.).
- Maite Peña López and., Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatua.

Era berean, bilkurara Miren Saratxaga and. Etorri da Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria, Marian Olabarrieta Ibarondo andrearen ordezkari.

- Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) ordezkari gisa:

- María Natividad López de Munáin Alzola and. Elburgoko alkatea.
- Eneko Maioz Ganboa jn.. Oresako alkatea.
- Gonbidatu gisa Dorleta Goiburu and., EUDELeko teknikaria etorri da.
- Ezin etorria adierazi du Josu Bergara López jaunak. Sestaoko alkatea eta EUDELeko ordezkaria.

GAI-ZERRENDA

1. Izendapen berriak
2. Aurreko bilkurako akta irakurtzea eta onartzea (2016/10/06).
3. Adinekoentzako egoitza-zentroen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena igortzea.
4. EAEn familia-harrera arautzen duen Dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena igortzea.
5. Finantzen Euskal Kontseiluari (FEK) 2016ko Gizarte Zerbitzuen Funtsaren inguruan bidalitako informazioaren berri ematea.
6. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari jarraipena egiteko lantalde teknikorako izendapenak eskatzea.
7. Galderak eta eskaerak.

Goian aipatutakoekin bilerari hasiera eman zitzaien.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko organoaren lehendakari gisa, etorritakoei ongi etorria eman die.

Jarraian, gai-zerrendan jasotako puntuak jorratzeari ekin zaio.

1. Izendapen berriak

Lehendakariak GZEAR (OISS)ko izendapen berriak birpasatu ditu.

Kide titularren zerrendan honako hauen daude:

- Lehendakaria bera, Beatriz Artolazabal Albeniz and., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko sailburua.
- Alberto Alberdi Larizgoitia jn. Ekonomia eta Aurrekontuen sailburuordea.
- Ernesto Sainz Lanchares jn., Familia Politika eta Aniztasuneko zuzendaria.
- Marian Olabarrieta Ibarrondo and., Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako diputatua.
- Eneko Maioz Ganboa jn. Orexako alkatea.

Ordezko kideen kasuan:

- Sergio Juanena jn., Kabineteko zuzendaria, Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Gizarte Politiketako sailburuordearen ordezkari.

- Amaia Arteaga and. Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria. Emilio Sola Ballojera jaunaren ordezkari, Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.
- Ander Añibarro jan, Gazteriako zuzendaria Ernesto Sainz Lanchares jn., Familia Politika eta Aniztasuneko zuzendariaren ordezkari.
- Izaskun Urien Azpitarte and. Lan Harremanen zuzendaria, como suplente de D. Andrés Zearreta Otazua jan., Funtzio Publikoko sailburuordearen ordezkari.. Miren Saratxaga and., Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria Marian Olabarrieta Ibarrondo andrearen ordezkari.

2. Aurreko bilkurako akta irakurtzea eta onartzea (2016/10/06).

2016ko urriaren 6ko akta onartu da.

3. Adinekoentzako egoitza-zentroen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena igortzea.

Emilio Sola jaunak hartu du hitza dekretuaren azalpen labur bat egiteko, eta 1998ko Dekretuarekin alderatuz hobetu diren alderdiak azpimarratu ditu: besteak beste, pertsonarengan ardaztutako arreta-eredu bat txertatu izana, langileen/erabiltzaileen ratioak igo izana, gehitu diren protokolo eta erregistroak, edo loturen erabilera saihestearen kontua (salbuespenetzko egoeratan eta derrigorrez bete beharreko baldintzetan soilik erabiliko dira).

Jarraian, Dorleta Goiburu andreak, EUDELeko teknikaria bera, hitza hartu du mahaiari eskatzeko aintzat har dezan 21. artikuluari egindako alegazioa, eguneko egonaldien kasuan gehieneko pertsona kopuru bat ezarriko dela adierazten duen oharra kentzeko eskatzen duena.

Proposamena aho batez onartu da eta ohar hori ezabatu egin da.

Ondoren, presidentek nahitaezko txostena igortzeari buruzko bozketa egitea proposatu du, EUDELek proposatutako eta guztiek onartutako aldaketa barnean hartuta, eta bertaratutako kide guztiek baieztatu bozka eman dute.

4. EAEn familia-harrera arautzen duen Dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena igortzea.

Presidentek Ernesto Sainz Lancharesi eman dio hitza, Dekretu-proiektuari buruzko azalpen bat egin dezan. Honako hau adierazi du:

Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harrera arautzen duen DEKRETUA oinarriko bi printzipiotatik abiatzen da: Lehena, adingabearen interes gorena; bigarrena, familia-harrerari buruzko neurriari lehentasuna ematea egoitza- edo erakunde-harreraren aldean. Horren oinarria da adingabeak familia-giroa behar duela nortasuna behar bezala garatzeko.

Legealdi honetan egokia eta beharrezkoa iruditu zaigu adingabeko pertsonak babesteko neurria garatzen duen eta familia-harrera arautzen duen araudia onartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan Otsailaren 18ko 3/2005 Legea, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko (aurrerantzean HNL), lehendabiziko arauzko erreferente orokorra izan zen haurren gaia, eta, bereziki haurren eta nerabeen artapenaren eta babesaren gaia eta haien eskubideen nahiz erantzukizunen defentsaren, bermearen eta sustapenaren gaia jorratzerakoan.

Aipatutako legeak arauzko testu bakarrean jasotzen ditu haurren eta nerabeen alde aintzatetsitako oinarrizko eskubideak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen esku-hartzea gidatu behar duten printzipioak ezartzen ditu haurrak eta nerabeak babesteko dituzten eskumenen egikaritzan, eta, aldi berean, haurren gaiari buruzko eskumenen esparrua argitzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren (Eusko Jaurlaritza), Foru Administrazioaren (foru-aldundiak) eta Udal Administrazioaren (udalak) artean.

Halaber, arriskuan edo babesgabe dauden haur eta nerabeen babesa izan zen erregulazio berrian protagonismorik handiena lortutako beste jarduketa eremu nagusietariko bat. Horren inguruan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek haur edo nerabe bat ukitzen duten arrisku- eta babesgabetasun-egoeretan esku hartzeko duten betebeharrari dagokionez, aipatutako legezko testuak berak familia-harrera egituratzen zuen babes-erakunde berri gisa.

Filosofia horretatik abiatuz, babes neurri desberdinen artean, HNLk bereziki azpimarratzen ditu adingabea familiarengandik edo familia-ingurunetik bereizi beharra dakarten neurriak eta, zehatzago, familia-harrerari dagokion neurria; horretarako, aipatutako lege-testuaren III. tituluaren II. kapituluak haur eta nerabeen babesari buruzko 6. atalean garatzen ditu neurri zehatz horren gaineko arauzko xedapenak.

Aurrekoa gorabehera, HNL duela bi urte onartu zenetik –eta bizileku-harreraren babes-neurriarekin gertatutakoaz bestaldera–, familia-harreraren neurria ez da arau bidez garatu denbora-tarte horretan guztian.

Gertakari hori oztopoa izan da hiru lurralde historikoek babes-eremu horretan batera eta modu paraleloan aurre egin ahal izateko. Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan hutsune juridikoa sortu da, betiere foru-aldundiek beren zaintza edo babespean dituzten adingabeen familia-harreraren prozedura osoan zehar garatu beharreko jarduketak eta faseak argitzeko beharrezkotzat jotzen diren prozedura-irizpide, -gidalerro eta –jarraibideak zehazteari eta ezartzeari dagokionez; eta hori halaxe gertatu da hartutako familia-harreraren neurria gauzatu aurretik, hura indarrean egon bitartean eta amaitutzat eman ondoren ere.

Hala eta guztiz ere, foru aldundiek azken urteotan zehar figura horren xehetasunak landu dituzte, eta, horri esker, askoz errazagoa izan da dekretu hau egituratzea, betiere foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko adostasunarekin.

Testuinguru honetan, kontuan hartzekoak dira onartu berri diren uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa eta uztailaren 28ko 26/2015 Legea, biak ala biak haurren eta nerabeen babes-sistema aldaraztekoak eta, besteak beste, jadanik gorago aipatutako

Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren eta Kode Zibilaren aldarazpena eragin dutenak.

Eta hori guztia egindako aldarazpenen artean nabarmentzen baitira familia-harrerari dagozkionak eta familia-harrera bizileku-harreraren aldean lehenestea helburutzat dutenak. Horren oinarria da adingabeak familia-giroa behar duela nortasuna modu egokian garatzeko, eta, horregatik, are premiazkoagoa eta beharrezkoagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harrera arau bidez garatzea.

Aurrekoa ikusita eta Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak haurren gainean ezarritako eskumenen testuinguruan, Eusko Jaurlaritzari dagokio legegintzazko ekimena eta erregelamendu-ahala egikaritzea haurren eta nerabeen arloan (104.1 artikulua), eta, foru-aldundiei, euren eskumeneko lurralde-eremuan, lege horren III. tituluak ezarritako jarduketak aurrera eramatea babesgabetasun larrian dauden edo zaintzarik ez duten haurrak eta nerabeak babesteko gaian.

Aurreko oinarriaren gainean, Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harreraren arauzko garapenari heltzen zaio, gaiaren izaerari eta bermerik handienak ezartzeko premiari men eginez, bereziki, babesgabe dauden eta foru-aldundien zaintza edo babesaren pean dauden adingabeei begira, eta, harekin bat etorritik, segurtasun juridikoa sendotuz. Eta, jakina denez, foru-aldundiek duten esperientzia garrantzitsua kontuan hartuz, bai familia-harrera egiteko euren burua eskaintzen duten pertsonen egokitasuna aztertzean eta balioestean, bai harrera egindako adingabearen, familia harreragilearen eta jatorrizko familiaren aholkularitza-, prestakuntza- eta laguntza-neurriak, -programak, -baliabideak edo -zerbitzuak ematean, bai euren zirkunstantzia partikularrak kontuan hartuz adingabeari harrera egiteko egokientzat hartzen diren pertsona harreragileak hautatzeko eta adingabearen interesik gorenari men eginez egokientzat hartzen den familia-harreraren neurria gauzatzeko jarduketak aurrera eramatean.

Horren ondorioz, familia-harrera xehetasun handiarekin arautu da, honako helburu hauekin: batetik (i), herritarrengan eragina duten arau guztiei exiji dakiekeen segurtasun juridikoaren printzipio orokorra sendotzea. Bestetik (ii), Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiek berdintasunerako duten printzipioa (bizi diren lurralde historikoa bazter utziz) indartze. Azkenik (iii), bermerik gorenak ematea babesgabe dauden adingabeei eta familia edo pertsona harreragileei nahiz gurasoei edo tutoreei eta, oro har, adingabearen jatorrizko familiari, haren neba-arrebengan berebiziko arreta jarritz.

Beraz, foru-aldundiek exekuzio-eskumena dute, eta, horregatik, aldi berean ahalmenak dituzte jarduketa-prozedura orokorra bakoitzaren antolaketa propioaren arabera garatzeko eta egokitzeko, foru-autonomiaren printzipioa onartuz; izan ere, horren kariaz, foru-organoen antolaketa, araubidea eta jardunbidea onartzeko eskumen eskusiboa dute.

Gainerakoan, edukiari dagokionez, Dekretua hamabi kapitulutan egituratzen da eta bi xedapen gehigarrik, xedapen iragankor batek eta azken xedapen batek osatzen dute. Honako gai hauek lantzen dira: familia-harrerako prozedurak; Foru Aldundien esku-hartzea gidatu behar duten jarduketa-printzipioak; Foru Aldundiei dagozkien funtzioak; familia-harreraren modalitateak; adingabeen, gurasoen edo tutoreen eskubideak eta betebeharrak; familia-harrerako prozeduraren faseak; egokitasunaren azterketa eta

balorazio psikosoziala eta balorazio hori eguneratzeko prozedura espezifikoa; ezarritako familia-harrerako neurria aldatzea zein egoeratan onartzen den zehaztea; ezarritako familia-harrerako neurria aldi baterako etetea; zein kasutan utzi daitekeen neurria bertan behera; deklaraturako egokitasuna automatikoki galtzea; jatorrizko familiarekiko bisiten, harremanen edo komunikazioen araubidea edo hura aldatzeko edo eteteko aukera; eta pertsona harreragileen erregistroa sortzea.

Jarraian, presidenteak hasiera eman dio iruzkinak egiteko tarteari, eta inork ez du iruzkinik egin.

Organoko presidenteak EAEn familia-harrera arautzen duen Dekretu-proiektuari buruz egindako nahitazko txostena aurkeztu du, kontsulta-izapidean zehar jasotako alegazioetako batzuk txertatu ondoren egindakoa. Bozketa egin da eta nahitazko txostena igorri da, bertaratutako kide guztiek proposaturako testuari baiezkoa eman ondoren.

5. Finantzen Euskal Kontseiluari (FEK) 2016ko Gizarte Zerbitzuen Funtzaren inguruan bidalitako informazioaren berri ematea.

Lide Amilibia Bergaretxe andreak, Gizarte Politiketako sailburuordeak, EUDELEk xede horretarako aurkeztu dituen testuak azaldu ditu; txosten bat eta gizarte zerbitzuetako eskualdeko mahaien aktak.

Adostasuna dago 2016ko Funtzari dagokion gastua justifikatzeko aurkeztutako dokumentuei dagokienez.

6. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari jarraipena egiteko lantalde teknikorako izendapenak eskatzea.

Presidenteak adierazi du mezu elektronikoa bat bidaliko dela, erakunde bakoitzak urtarrilean sortuko den jarraipen-batzorderako ordezkari bat izenda dezan.

Hernando Lacalle Edeso jaunak aipatu du M^a Jesús Pérez Zubeldia andreak ordezkaturako duela Ogasun Saila batzorde horretan.

7. Galderak eta eskaerak.

Lide Amilibia Bergaretxe andreak Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiaren berri eman du eta jakinarazi du dagoeneko testu bat dagoela, xede horretarako sortutako erakundeen arteko batzorde politiko-teknikoak adostu duena eta hirugarren sektore sozialarekin ere landu dena.

Argitu du urtarrilean, edo beranduenez otsailean, egingo dela erakundeek estrategiarekiko atxikipena sinatzeko ekitaldia.

Sergio Murillo jaunak hartu du hitza, irtetera doazen pertsonei egindako lanagatik eskerrak emateko eta bilera honetan nahitaezko txostena igorri zaien bi dekretuen inguruan aurrez egindako lana eskertzeko.

Beste galde edo eskerik ez dagoenez, eta bertaratu diren pertsonei eskerrak emanaz, presidenteak bilera amaitutzat eman du 11:40an.

Idazkaria

Lehendakaria

Sin. Emilio Sola Ballojera jn.

Sin. Beatriz Artolazabal Albeniz and.